


118 greba egunak



#Zaintzaldia

Sagues **Erresidentzien Zinemaldia** 25,26,27
SEPTIEMBRE

PREKARITATEAREN JOMUGAN

Penelope Cruz, Kristen Stewart, Tim Roth, Ricardo Darín... 2019ko Zinemaldiko protagonistak. Ezagunak, sozialki errekonozituak, argazki eta portadetan azaltzen dira. Baina hori Zinemaldia da...

Hau, aldiz, **#Zaintzaldia** da eta protagonistak beste batzuk dira: **Bego Gainza, Ana Sastre, Ana Merchán, Sonia, Lourdes...** Gipuzkoako hirugarren adinekoen erresidentzietan gure nagusiak zaintzearen ardura dugunak; **emakume prekario** bezala gure pelikula kontatu nahi dugu protagonistak garelako

Lan baldintza duinen alde greba hasi genuenetik urte bat baino gehiago pasa da. Oraingo greba tanda bukatutakoan guztira **118 greba egun beteko ditugu.**

Gurea **borroka feminista** da gure borrokarekin maskulinizatutako sektoreekiko soldaka arrakala bukatzea eskatzen dugulako.

Gurea **langile borroka** da urte bat baino gehiago daramagulako **erakunde eta patronalen aurka** borrokatzen, zeintzuek zaintzen sektorea irabazi handiko negozio bilakatu nahi duten **emakumeak esplotatu eta dependentsia dutenak zabartzearen kontura.**

Gurea bizitzaren aldeko borroka da gure gizartearen lehentasunen erdian pertsonen zaintza jartzea nahi dugulako, jaiotzetik azken egunera arte. Profesionalizatutako zaintza, berdintasunaren aldekoa, zatiketa sexualik gabekoa eta duina.

Guztion artean gizarte justu eta berdinago bat eraiki dezakegulako, zure sinadurarekin babesteko eskatzen dizugu eta baita gure zine-festival alternatiboarekin bat egitea, bai pertsonan edota sare sozialen bidez (facebook, twitter...) **zure argazki edo elkartasun mezuekin #traola hauek erabiliz:**

#Zaintzaldia #ErresidentziakBorrokan



ELA
EUSKAL SINDIKATUA